



Hezkuntza publikoan lan baldintzak hobetu. Hemen eta orain erabakita.

**Zuzendaritzei
bideraturiko
gutuna**
2025-02-13

Kaixo lankide,

2025 urteko Urtarrilerako eta Otsailerako Hezkuntza Publikoan LAB, STEILAS, ELA eta CCOO sindikatuek deitutako grebetarako eraturako **Greba batzordeak ondorengoa helarazi nahi dizute, Eusko Jaurlaritzaren ardurapeko sukalde eta garbiketako langileak dituzuen eskoletako zuzendaritzei:**

Dakizuen bezala, **greba ziklo batean gaude murgilduta** hezkuntza publikoan aritzen garen Hezkuntza Saileko sukaldari eta garbiketako langileak zein irakasleak ere. Urtarrilaren 22an eta 23an irakasleek bi greba egun egin zituzten eta urtarrilaren 30eta 31an hezkuntza publikoko sukalde eta garbiketako langileek beste bi.

Otsailaren 19rako eta 20rako Sukalde eta garbiketako langileak grebara daude deituta; irakasleak berriz otsailaren 26 eta 27rako.

Sukalde eta garbiketako langileen kasurako ondorengoak izan dira Lan sailak ezarri dituen gutxieneko Zerbitzuak:

"(...) Garbiketako eta sukaldeko langileak (2025eko urtarrilaren 30ean eta 31n eta otsailaren 19an eta 20an).

1. Haur hezkuntzako ikastetxeetako eta hezkuntza bereziko ikastetxe espezifikoko garbiketako langileak.

Egunero zoruak, piletak, komunak eta bainuak garbituko dira, eta hondakin organikoak bildu eta kenduko dira. Lan horiek zerbitzu horiek eman ohi dituzten langileen % 50ek egingo dituzte, eta ez dute inoiz eguneroko lanaldia baino lanaldi luzeagoa izango. % 50 pertsona 1 baino gutxiago bada, ezarritako gutxieneko zerbitzua egitera deituta dago; pertsona 1 baino gehiago bada, baina 2 baino gehiago ez badira, gutxieneko zerbitzuak eman behar diren denbora zehazteko kalkulua zerbitzuko langileen ohiko lanaldia kontuan hartuta egin beharko da.

2. Sukaldeko langileak. Jantoki-zerbitzua bermatuko da, eta, horretarako, erraz eta erraz elaboratzen diren elikagaiak prestatuko dira Hezkuntza Saileko lankontratuak langileek sukaldaritzaz-zerbitzua ematen duten ikastetxeetan bertan. Aurreko eginkizunak sukaldeko langileen % 10ek beteko dituzte. % 10 pertsona 1 baino gutxiago bada, ezarritako gutxieneko zerbitzua egitera deituta dago. (...)"

Jakin ahal izan dugu **Urtarrilaren 30eko eta 31ko grebetan, arazoak** egon direla **hainbat sukaldetan**. Horrela, kasu batzuetan ikasle guztiei jaten eman nahian gutxieneko zerbitzuetan zeuden langileak ohiko zerbitzua ematea eskatu zaie. Bestetan, gutxieneko zerbitzuetan zeuden langileei laguntza eman nahian greban zeuden grebalarrien funtzioak ordezkatu dira eskolako beste langile batzuekin.

Jakin badakigu Eusko Jaurlaritzatik jasotako jarraibideak jarraitu direla eskola batzuetako zuzendaritzen aldetik; eta bestelako tresnarik eskura izan ez direlako suertatu direla egoera hauek hainbatetan.

Beraz, Greba Batzorde honek, eskoletako zuzendaritzei otsaileko hurrengo greba egunetara begira, **ondorengo jarraibideak** helaraztea erabaki du; helburua, **greba eskubidea errespetatzea** eta horrelako egoerak ekiditeko **tresnak eta argudioak zuzendaritzen eskura jartzea izanik.**

Greba eskubideari eta gutxieneko zerbitzuei buruzko hainbat argibide:

- Greba eskubidea **oinarrizko eskubide** bat da.
- Otsailaren 19 eta 20ko grebetarako ezarritako **gutxieneko zerbitzuak lehen ezarritakoak dira**, zerbitzu minimoen inguruko aginduan ezarritako portzentaietan.
- **Ezin dira** greba egunetan, **zerbitzu minimoen aginduan ezarritakoa baino gehiago eskatu, ez eta greban dauden langileen funtzioak ordezkatu ere.**

